

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteartea, 2012ko martxoaren 27a. IX. urtea. 2.383. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Hilketak «zerbait gaizki egiten ari garela» erakusten du Tolosako Udalaren ustez

Udalbatzako zinegotzi guztiek bat egin dute hainbat eragilerekin hitzartutako udal adierazpena; «emakume izatea arrisku faktorea» dela esan dute ezohiko bilkuran

39 urteko emakumea hil du ustez, 26 urteko bikotekideak; Ertzaintzak atxilotu du eta gizonezkoak bere gain hartu du hilketak; epailearen aurrean deklaratu zain dago **2-3**



Jende ugari gerturatu zen atzo, Trianguloa plazara, Bilgune Feministak deitutako elkarretaratzean parte hartu eta hilketak salatzen. I.TERRADILLOS

Inoizko parte hartzerik handiena, Aizkardiren Ibilaldian

Bi mendi martxa antolatu ditu Aizkardi mendi elkarteak, eta guztira 1.508 mendizalek parte hartu dute; antolatzaileek parte hartzaileen arteko «giro ona» eta eguraldi bikaina egin zuela nabarmendu dute **7**



Mendizale batzuk Ibilaldaren azken zatia egiten. ERIKA SARASOLA

Amezketako Zazpi Iturri, Berria Txapelketako garaile

Bigarren urtez jarraian irabazi dute pilota lehiaketa hori, eta titulu gehien lortu dituen elkarrekin da; Aurrera Saiaz, txapeladunorde **6**

MARTXOAK 29 GREBA OROKORRA

Martxoaren 29an ez da papereko alerik kaleratuko. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariko lantaldeak bat egiten du sindikatuek martxoaren 29rako deitutako greba orokorrekin.

tolosaldea.hitza.info webgunean grebarekin zerikusia duten albisteak irakurri ahal izango dira.

Asteazkena - martxoak 28 - 19:00etan

tolosaldea.hitza.info
webgunean
zuzeneko emanaldia

Gaia:

Atez ateko hondakin bilketa

Irurako ikastolatik
Bilduko Imanol Azpiroz eta EAJko Karlos Ormazabal
mahai inguruan

Bertso-bazkaria

Martxoak 31,
Larunbata
Lizartzan

Lekua:
Goikoetxea sagardotegia
Ordua: 14:00
Antolatzailea:
Lizartzako Bertsozaleak
Bertsolariak:
Sebastian Lizaso, Andoni Egaña
Eskusoinua: Manolo Ibarguren



Izena emateko:
Xabino 609 017 081



Ezohiko batzarrean jende asko bildu zen, atzo; aho batez onartu zuten adierazpena Tolosako emakumearen heriotza salatuz. Ondoren, Trianguloako elkarretaratzean parte hartu zuten askok. U.

«Emakume izateagatik erailtzen dituzte; hori da arrisku faktorea»

Ertzaintzak 26 urteko gizon bat atxilotu du Larramendi auzoan hilda aurkitutako 39 urteko emakumearen hiltzailea delakoan

Atxilotuak hilketa egin izana onartu du, eta bihar pasako da epailearen aurretik

Eneritz Maiz- Itzea Urkizu

Tolosako Larramendi auzoan emakume bat hil zuen gizonak batek igande iluntzean eta gertara hau salatzeke ez ohiko batzara egin zuten, atzo, Tolosako udaletxean.

Udala osatzen duten ordezkariek eta alderdi politikoei testu bateratua onartu zuten, Berdintasun sailarekin, Bilgune Feministarekin eta Berdinbide taldea-

rekin batera. Udal ordezkariek, lehenik eta behin, eraso sexista salatuz, eta hildako emakumearen familia eta gertukoiei beren doluminik sentikorrena adierazi zieten. Era berean, «emakume izateagatik erailtzen dituzte, berdin dio zein den bere jatorria, klase soziala edota egoera, emakume izatea da arrisku faktorea», esan zuten. Honekin batera, hiltzailearen adina ekarri zuten gogora -26 urte- eta denborak ar-

zoa ez duela konponduko esan: «Belaunaldi gazteetan errepikatzen diren rol estereotipatuak erakusten ari diren bezala».

Erantzunak integralak izan behar direla ere adierazi zuten; «denok elkarrekin ez bagoaz, konponbideak ez dira eraginkorrak izango». Bukatzeko, herritar guztiak gonbidatu zituzten mobilizazioetan parte hartu, eta «indarkeria matxistaren kontra lanean» jarraitzea.

Ezohiko batzarra bukatuta bertaratutako asko Trianguloara joan ziren, plazan Bilgune Feministak deituta, herritarrek elkarretaratzea egin zuten eta. Jende asko elkartu zen 39 urteko Caridad Rodriguez Arrietaren hilketa salatzeke. Bertan, besteak beste, Laura Gomez, Berdintasun diputatua; Ikerne Badiola, Kultura,

Gazteria eta Kirola saileko ahal-duna; Loitzune Txarola Batzar Nagusietako presidentea; Martin Garitano Ahalduen Nagusia; eta Jose Luis Herrador Espainiako Gobernuak Gipuzkoako gobernadoreordea izan ziren. Leitzan ere, Lopeneko biribilgunean bildu ziren herritarrek.

Gertaerak

Ertzaintzak igandean 20:00ak aldera jaso zuen gizonak baten deia, emazte ohiak bere etxeko atea irekitzen ez ziola eta. Etxebizitzako gela batean aurkitu zuten hildako emakumearen gorpua indarkeria zantzuarekin. Lepoan zuten ebakia.

Hiru ordu beranduago emaku-

mearen etxebizitzan agertu zen biktimaren oraingo bikotekidea. Hilketaren ustezko egilea zelakoan atxilotu zuen Ertzaintzak, gazteak beren aurrean horrela onartuta.

Atxilotua, aurretik ere, beste zazpi aldiz atxilotu dutela adierazi du Herrizaingo sailak

Emakumea hilik agertu zen gela, hainbat labana aurkitu zituen Ertzaintzak, eta horietakoren batekin bere bikotekidea hil ote zuten aztertzen ari dira. Atxilotu zuten unean, gizonak besaurrean labanaz egindako zauriak

Erreakzioak

Emakunde

«Nazka eta gaitzespena sentitzen dugu, eta indarkeria mota hau emakumei zuzendutako mehatxu tresna bat da, gaur egun indarrean dauden genero arauak aldatu ez ditzaten».

Bilgune Feminista

«Horrelako zenbat gehiago entzun, ikusi eta bizi behar ditugu? Euskal Herrian milaka emakume bizi dute babesgabatasun hau. Eta horren ondorio larriena dira erailketa hauek. Egiturazko arazoa da, eta ondorioz, ez da

nahikoa momentuko neurriekin erantzutea. Neurri eraginkorrak behar ditugu, prebentziozkoak, integralak, jendartean erasotzaile gehiago ez dela egongo bermatuko dutenak».

Josebe Iturrioz

Tolosako Udaleko Berdintasun teknikaria

«Denok dugun lehen sentipena ezintasunarena da; min eta amorrazio handia eman dit. Kasu honekin, arazoaren garrantziak jabetu behar dugu, eta konpromiso irmo bat hartu, honen aurka lan egiteko. Indarke-



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Garbitzailea.** Orduka lan egiteko, esperientziadun pertsonak bere burua eskaintzen du, etxeak, tabernak, sukaldeak, eta abar garbitzeko. Autoa ere badauka. Interesatuak, deitu 699 599129 telefono zenbakira.



Ertzaintzak emakumearen etxeko atea zigilatu zuen. HITZA

zituela esan zuens Ertzaintzak, eta Tolosako klinikara eraman zuten. Asuncion klinikari Donostiako psikiatria sailera eramatea gomendatu zioten Ertzaintzari. Sail horretan alta eman ondoren, Tolosako Ertzaintzaren polizia etxera eraman zuten ertzainek, galdeketa egiteko. Une honetan polizia etxean dago, eta 48 ordu igarota epailearen aurretik pasako da. Eusko Jaurlaritzako Herri-zaingo sailak jakinarazi zuenez, atxilotuak hilketa egin izana onartu du.

Atxilotua, aurretik ere, beste zazpi aldiz atxilotu dutela azaldu zuen Herrizaingo sailak. Horieta-ko batean, orain hiru urte, aurreko bikotekideari mehatxu egitea leporatu zituen. Lau urtez kartzelan egona da, lapurreta, droga trafikoa eta genero indarkeriagatik.

Arduraz jokatzeko deia

Atzo eguerdian Ibai Iriarte alka-atea prentsaren aurrean agertu zen eguerdian. «Indarkeria matxistaren aurrean arduraz jokatzeko eskatzen dut. Gizartean zerbait gaizki egiten ari gara, eta hausnarketa sakon bat egin behar dugula iruditzen zait, denon artean honi bukaera eman diezaiogun. Ikusi besterik ez dago

zenbat emakume hiltzen dituzten, egun bat bai eta bestea ere bai», nabarmendu zuen alkateak.

«Ez da normala honelako hainbeste kasu gertatzea. Gaur hemen hilketa bat gertatu delako gaude, baina egunerokoan genero indarkeriaren kasu asko ematen dira», ekarri zuen gogora. Gizarte honetan aldaketak emateko, hezkuntza beharrezkoa dela nabarmendu zuen, eta baita ohi-turak aldatzea ere. «Errespetuz jokatzeko nahi dut, eta ez dut izenik ematea nahi, eta are gutxiago adin txikikoak tar-tean daudenean. Morboan erori gabe, informazioa nahi dut», gaineratu zuen Tolosako alkateak.



Gizartean zerbait gaizki egiten ari gara, eta hausnarketa sakon bat egiteko beharra dugu»

IBAI IRIARTE
Tolosako alkatea

Era berean, herritarrei «egun hauetan deituko diren elkarretaratze zein salaketa adierazpenean», parte hartzeko deia egin zien.



Udaletxearen atarian egin zituen adierazpenak Ibai Iriarte alkateak. LURKIZU

Alderdi eta eragileek ere gertaeraren aurrean, beraien salaketak egin zituzten, eta gaur bertan, Emakumeon Mundu Martxako plataformak deituta, hilketa hau salatzen elkarretaratzea egingo dute 19:30ean, Tolosako Triangeloa plazan.

Atzo, Bilgune Feministakoei ere egin zuten elkarretaratzea, eta «egiturazko arazoa da hau, eta ondorioz, ez da nahikoa momentuko neurriekin erantzutea. Neurri eraginkorrak behar ditugu, prebentziozkoak, integralak, jendartean erasotzailen gehiagorik ez dela egongo bermatuko dutenak. Sistema patriarkal kapitalista honi era integrean erantzuten ez zaion bitartean, emakumeon aurkako erasoek bere horretan jarraituko dute», adierazi zuten.

«Guztion indarrak ez dugu bat gehiago pasatzen utziko. Ez emakumeok emakume garen aldetik, baina ezta jendarteak berak ere, parekidetasunean oinarrituriko etorkizuna nahi badugu Euskal

Herriarentzat», gaineratu zuten Bilgune Feministako kideak.

«Heriotza azkenengoa da»

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak igande iluntzean Tolosan hildako emakumearen bizilagunekin hitz egiteko aukera izan zuen. Hauek bikotekide askotan istiluak izaten zituela baieztatu zuten.

Tolosako hainbat herritarrek ere gaitzetsi egin zuten igandean gertatutakoa. Batzuek goizean goiz ezagutu zuten berria, irratibidez gehienek.

Beste askok, ordea, ez zekiten ezer. «Heriotza azkenekoa» dela nabarmendu zuen gizon batek San Frantzisko pasealekuan, eta salatu egin zuen gertatutakoa.

Beste bi emakumek ere, erasoren berria orduantxe ezagututa, «erabateko matxismoa» dela azpimarratu zuten: «Lehen urrutiko lekuetan gertatzen ziren horrelako gauzak. Orain begira, herriaren bertan».

• tolosa@hitza.info

2010eko urtarrilean beste emakume bat hil zuten Tolosan

➔ Pablo Jorge Simaok Elena Cal erail zuen Tolosan 2010eko urtarrilean, labankadaz, eta pasa den otsaillean udalak hiltzailea *persona non grata* izendatzea adostu zuen mozio baten bidez. Calena izan zen, hain zuzen ere, Tolosaldean emakumeen kontra egindako azken erasoa.

Pablo Jorge Simaori hasieratik egotzi zioten hilketa, eta espetxera bidali zuten. Epaiketa, ordea, ez zen urte eta erdi beranduagora arte egin; fiskalak hamalau urteko espetxe zigorra eskatu zuen arren, epaileak hiru urte eta erdiko zigorra ezarri zion, «erailketa aurrez pentsatu gabea eta zuhurtziagabekeriako homizidioa» izan zela leporatuz. Azkenean, hiru urte eta erdiko zigorra ezarri zioten, eta Calen bikotekideari 92.000 euroko kalte-ordaina ematea ere agindu zion epaileak. Gaur egun, bi urte kartzelan pasa eta gero, Tolosan bizi da Pablo Jorge Simaok.

Epailearen erabakiak hautsak harrotu zituen herrian, eta Bilgune Feminista eta Berdinbide taldeek epaitegiko erabakia salatu zuten. «Berriz ere agerian geratu da emakume erasotzek justiziaren aurrean duten babesgabatasuna», azaldu zuen Bilgune Feministak. Kasu ez hain honetan, Elena Cal eskalea izateak «eragin zuzena» izan zuela ere salatu zuten aipatu elkarrekin: «Horrek irugarren mailako herritar bilakutzen al du? Ahantzuraren geratu behar al du bere izateak, eta lur azpian bere duintasunak? Ez gaude horretarako prest».



ria sexistari aurre egiteko, denok jabetu behar dugu arazoak, eta aldaketak oso integrala izan behar du, egiturazkoa. Egiten direna baino gauza gehiago egin behar dira, eta guk ere, udal barruan, eragile gehiago mugiarazi behar ditugu. Hala ere, ez dago gure esku bakarrik; gizartearen erantzukizuna da, eta komunitate bideena ere bai».

Berdinbide

«Lazgarria da matxismoak pauso erraldoiak aurrerantz ematea, atzera egin beharrean.

Ikaragarria da gertatu dena, batez ere egin duenaren gaitzetasunagatik. Erailketa gaitzetsi egin nahi dugu noski».

Eudel

«Tragedia honek berriro jartzen gaitu, bai erakundeak, bai herritarrak, egunez egun gure udalerrietan eta gizartearen osotasunean, berdintasuna eraginkor egiteko dugun erantzukizunaren eta larritasunaren aurrean».

Aralar

«Onartezina da XXI. mendeko

gizarte batean era honetako eraso matxistak gertatzea. Benetako berdintasuna lortu nahi badugu, ezinbestean era honetako gertaera lazgarriak kondemnatu behar ditugu, eta inolako salbuespenik gabe. Erakunde publikoetatik ahalegin berezia egin beharra dago, jada indarrean diren legeak betearazteko».

PSE-EE

«Indarkeria matxistak emakumezkoen duintasuna bortxatzen du, eta baita berdintasun eskubidea ere. Indarkeria ma-

txistak dakarren demokrazia defizita onartezina da».

Arartekoa

«Genero indarkeriaren erasotzek erabateko lehentasuna izan behar du botere publikoentzat, eta gizarte osoak inplikatu behar du lan honetan».

Emakumeon Mundu Martxako plataforma

«Emakumeon aurkako indarkeria gizartean gertatzen den giza eskubideen urraketa larrienetakoa eta hedatuenetakoa da.

Jendarteari eta emakume guztiei mobilizazioetan parte hartzeko deia egin nahi diegu».

Gipuzkoako Foru Aldundia

«Aldundiak bere gaitzespenik irmoena azaldu nahi du. Indarkeria matxistari modurik trinkoenean aurre egiteko Foru Aldundiaren konpromisoa eta asmo sendoa adierazi nahi dugu. Gipuzkoako gizonei egotera eta jokabide matxistak salatzen jarrera aktiboa izan dezaten eskatzen diegu».

Zizurkil ◊



TXEPETXAREN LEHEN EGUNA

Zizurkil Golan I. Gazte Eguna ospatu zuten larunbatean, eta bertan aurkeztu zuten Txepetxa Gazte Asanblada. Kirolak, herri bazkaria, bertso poteoa eta kontzertuak izan ziren besteak beste. Txepetxaren jaiatsienekin batera, Bazkaldu aurretik, gazte asanblada bakoitzek Txepetxa taldearen lehen familia argazkia ateratu zuten. ¹¹²²

Ibarra ◊



MARTXOAREN 29RAKO DEIALDIA

Ibarrako greba komitea larunbatean kalera irten zen, herrian martxoaren 29ko deialdia zabalitzeko. Greba orokorren inguruko kartelak jarri zituzten, bai kalean eta baita indusirguen artean ere. Bestalde, Tolosaldeko zehar zehar duanaren eta oasun publikoaren aldeko plattformek bat egin dute greba orokorarekin. ¹¹²²

Tolosa ◊



SALTOKIETATIK KALEETARA

100 saltoki baino gehiago irten ziren kalea larunbatean, Tolosa & Co-ren eskutik antolatuta zuten Braderie 2012 azokaren barruan. Dendetako produktuak jarri zituzten kaniketan salgai, orri baino prezio merkeagoan. San Frantzisko pasealekuan ere karpak jarri zituzten, produktuak bertatik bertara saltzeko helburuarekin. ¹¹²²

Ibarra ◊



RAY BUENOREKIN SOLASEAN

Villabonako Fleming ikastetxezko 2. mailako ikasleak idazle ospetsu baten bisita izan berri dute. Ray Bueno bere libuez aritu zen hitzetan, eta horrez gain, hiru ipuin kontatu zituzten Fleming-eko ikasleek. Hau ere ederriki pasatu zuten, eta eskerrik eman nahi izan dizkie Ray Buenore, euren ikastetxerara joateagatik. ¹¹²²

Tolosa ◊



BRASIL ETA ELKARTASUNA

Hirukide ikastetxezko ikasleak, Elkartasun kanpainaren barruan, Brasilen aldeko postua jarri zuten larunbatean, Trianguloan. Pin-txoak eta ederrik banatu zituzten bertan, eta bidaltzeko dirua Bar-bacena hirira bidertzeko asmoa agertu zuten. ¹¹²²

Tolosa ◊



DONEJAKUEKO BIDEA

Tolosako kultur etxean Gaiandizen Tolosaldeko eta Goleeriko gorren elkareak Donejakue bideari buruzko hitzaldia antolatu zuten larunbatean. Itakidada egiteko garaian jarraitu behar diren urratsak eta aholkuak jasotzen bertaratutakoek. ¹¹²²

Leizta ◊



ATEKAROCK JAIALDIA

Ateka beltzeko elkartek gustura zuten larunbatean ospatu zuten Atekarock jaialdiarekin, nahiz eta espero baino jende gutxiago gerturatu zen Leiztara. Jaialdia herriko kaleetan egin zuten kalejariarekin hasi zen, eta iluntzerantz kontzertuen bidea hartu zen. ¹¹²²

Amasa-Villabona / Tolosa ◊



PRESO ETA IHESLARIEN ALDEKO ALDARRIA

Amasa-Villabonako Herria bilgunearen aurkezpen ekitaldia egin zuten larunbatean, Aizibean. Mugimendu berriari babesa emateko 60 herritar inguru elkartzu ziren, eta Herriaren aurkezpenarekin batera, Argazki Rally'ko sariak banatu zituzten bertan. Herriko presoek osatutako epaimahalaik Madii Galaragaren argazkia saritu zuten, eta pu- ¹¹²²

bilkoaren saria Nora Urbizuren argazkiak irabazi zuten. Era berean, Tolosan, Herria Eguna ospatu zuten larunbatean. Astearen hartzeko tarterik ez zuten egun guztian zehar. Egundian manifestazioa egin zuten 200 lagun inguruk, eta ondoren herri bazkaria joan ziren gehienak. Eguna kontzertuekin bukatu zuten. ¹¹²²

harpidedun izateak badu saria

zozketa

1 **Ostatu Hernalde Jatetxea**
 Bi laguntzako bazkaria edo afaria
 Hernalde
 Tel.: 943 45 24 96
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

2 **ERROMERIA-Udaberri Dantzari Taldea**
 Bi laguntzako txartela
 Martxoak 31 • Larunbata
 Tolosalde Zerkausian
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 **Euskal Eskola Publikoaren XXI. jaiak**
 Bi elastiko
 www.ehigp.org/jaiak2012/
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

4 **EUREKA! Zientzia museoa**
 Bi laguntzako bina sarrera
 Mikelletegi, 43-45
 Donostia
 Tel.: 943 032 478
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **54**

5 **Lagun Aro GBC**
 Sarrera Batekoa
 LAGUN ARO GBC
 Ucam Murcia
 www.lagunaro.org
 Apirilak 8 gandea
 12:30ean Donostiako Bumban
 Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **55**

Parte hartzeko delitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** (harpidedunen kodea, izena, herria, eta zainkaintzatzen parte hartu nahi duzun gutxi adieraziz) Aste honetako zozketa, astearen eta ostegun goizean, orri 4. orriaren ondoren, zozketa ostean iragarriko dugu.

+Visión eta barre egin eskaintzei
 armazoia + kristalak
29€ tik hasita

Gente con + VISION
 El fin de las gafas caras
 Guztieneko prezioa berraztertzea bideratzen, kristal eta zaramunduen gaurerak, Eskaintzeak eta berraztertzeak, **masvision.es**

Kirolak >

Laskorainek berdinketarekin amaitu du Kirol Sport taldearen aurkako partida

Talde nafarraren aurka Usabal kiroldegian jokaturako norgehiagoka launa egin dute horitxoek

Unai Barriola Tolosa

Berdinketarekin amaitu zuen partida Laskorain areto futbol taldeak Kirol Sport taldearen aurka. Launa amaitu zen asteburuan Usabal kiroldegian jokaturiko norgehiagoka. Etxekoak atzetik hasi ziren, nafarrek bigol egin baitzituzten lehen bost minututan. Laskorainek berdindu egin zuen markagailua, baina aurkariak aurerratu ziren beste behin, eta tolosarrek berdintzea lortu zuten.

Binakako Txapelketatik at geratu dira Barriola eta Irujo

Berasaluze eta Albisuren aurkako partida 22-12ko emaitzarekin galdu dute

I. Terradillos Leitza

Berasaluze eta Albisuren aurkako partida galdu zuten larunbatean Abel Barriolak eta Juan Martinez Irujok. 22-12ko emaitzak ia txapelketatik at utzi zituen, herenegungo Xala-Laskurain eta Bengoetxea-Apraizen arteko partidaren gertatzen zenaren menpe. Bada, Xala eta Laskurainek 22-20 irabazi ostean Binakako Txapelketan aukerarik gabe geratu dira Barriola eta Irujo.



Amezketako Zazpi Iturri elkarteko pilotariak, larunbateko finalaren osteko sari banaketan. A. CANELLADA/ARGAZKI PRESS

Eskualdekoen arteko lehiaren amezketarrak gailendu dira

Zazpi Iturri elkartek irabazi du Berria Txapelketa, finalean Aurrera Saiatz taldeari irabazi ondoren

Erredakzioa

Eskualdeko pilotarien mailaren adierazle, Zazpi Iturri eta Aurrera Saiatz taldeen artekoa izan da IX. Berria Txapelketako finala. Hernaniko pilotalekuan jokaturiko kadeteen, gazteen eta nagusien mailako hiru partidetan amezketarrak izan dira nagusi, 2 eta 1eko emaitzarekin. Modu honetan, bigarren urtez jarraian izan dira txapeldun Zazpi Iturrikoak, eta orotara, hirugarrenez lortu dute txapelketa, titulu gehien lortu duen pilota elkartea delarik.

Kadeteen mailakoan Zazpi Iturriko Altuna eta Eratsun, eta Aurrera Saiatz elkarteko Chiapuso

eta Aburuza lehiatu ziren. Amezketako elkartekoek 22 eta 7 irabazi zieten Bidanikoei. Emaitzak bestelakoa pentsarazten badu ere, partida gogorra izan zen, 50 minutuko iraupenekoa. Tanto orekatuak eta politak jokatu zituzten, baina gehienak gorrien aldekoak izan ziren. Altunak beste guztien gainetik dagoela erakutsi zuen, eta Eratsun bezalako atzelerari sendo batekin, zaila da bikoteari aurre egitea.

Partidaren hasieratik hartu zuen aurrea Zazpi Iturri, eta horrela mantentzen jakin zuen. Chiapusok eta Aburuzak maila handia dutela erakutsi zuten, baina zorte txarra egokituta, Altuna bezalako aurkariak egokituta.

Jaialdiko bigarren partidaren ere Zazpi Iturri izan zen nagusi. Kasu honetan, Iribarriak eta Tolosak eman zuten erakustaldia. Kolpe freskoa dute biek, pilota bizitasun ikaragarriarekin ateratzen zaie eskutik, eta aurkariak ez diete

ezertarako aukerarik ematen. Iribarriak egin zituen partidako tantorik ikusgarrienak, ezker bolea baliatuta. Labaka eta Elustondo saiatu ziren aurre egiten, baina eusten, defentsan, aritu ziren uneoro.

Nagusietan Aurrera Saiatz

Hirugarren finala, berriz, Bidaniko taldearentzat izan zen. Ordurako, ordea, guztia erabakita utzi zuten amezketarrek. Dena den, tanto politik ikusi ahal izan ziren nagusien mailakoan. Urbieta II.ak Olaetxeak bezala, gaitasun handia duela ederki erakutsi zuen.

Pozik, pilotarien mailagatik

Zazpi Iturri elkarteko arduraduna Xalton Zabala «oso gustura» azaldu da pilotariak lortu dutenarekin: «Txapelketa irabazteagatik oso pozik nago, baina daukagun taldearengatik pozten naiz gehiago; oso pilotari onak suertatu zaizkigu, eta maila horretan guri irabaztea oso zaila zen». Eskualdeko pilotarien inguruan, Zabalen arabera, «egungo eskolarik garrantzitsuenetakoa ditugu, maila oneko pilotariak, eta ziur goiko mailan ikusteko aukera izango dugula».

Luis Galarraga Aurrera Saiatz elkarteko arduraduna ere gusturaz azaldu da pilotarek emandakoa maiarekin.

Galarragaren ustez, «materialak asko baldintzatu du», jubenil mailakoan kasuan, bereziki. «Horrek haserretu edo mindu nau gehien», esan du.

↓ Kirol emaitzak

PILOTA

LEHEN MAILAKO

BINAKAKO TXAPELKETA

Berasaluze-Albisu	22
Irujo- Barriola	12
Xala-Laskurain	22
Bengoetxea VI-Apraiz	20

Sailkapena

- Olaizola II-Beroiz
- Berasaluze-Albisu
- Titin III-Merino
- Xala-Laskurain
- Irujo-**Barriola**
- Bengoetxea VI-Apraiz**
- Lasa-Zubieta
- Arretxe-Begino

BERRIA TXAPELKETA

Kadeteak

Altuna-Eratsun	22
Chiapuso-Aburuza	7

Gazteak

Iribarria-Tolosa	22
Labaka-Elustondo	10

Nagusiak

Olaetxea-Santxez	11
Urbieta II.a-Telletxea	22

Sailkapena

Zazpi Iturri	2
Aurrera Saiatz	1

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKOA

27. jardunaldia	
Berio-Tolosa CF	1-1

Sailkapena

1. Anaitasuna	55p
2. Pasaia	51p
3. Tolosa	48p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF-Real Union B

ERREGIONAL PREFERENTEA

23. jardunaldia	
Lehen taldea	
Tolosa B-Dunboa Eguzki	2-0

Sailkapena

1. Touring	62p
2. Ostadar	59p
3. Tolosa B	49p

Hurrengo jardunaldia

Lengokoak-Tolosa B

Bigarren taldea

Intxurre-Ordizia	2-2
------------------	-----

SASKIBALOA

NAGUSIEN MAILA

Fundacion Ardoi	66
Bide Bide Ibiz	59

Sailkapena

- Santurtzi
- Askartza
- Bide Bide Ibiz**

SENIOR MAILA

Take Orbela	58
Leioak Zast	52

Take Aralar

Errobidde Irun	67
----------------	----

Izan zaituz berri-laguna

zure ziztada behar dugu

Berri-laguna ekimena Tolosaldean sustatzen laguntzeko prest bazaude, **GAUR**, martxoaren 27an, asteartea, 19:30ean Tolosako kultur etxean egingo dugun bilerara gonbidatzen zaitugu.

Antolatzaileak «gustura» Aizkardiko Ibilaldia izan duen parte hartzearekin

1.508 mendizalek hartu dute parte Aizkardi elkarteak antolatutako ibilaldian, aurrekoetan baino askoz gehiago

Iñigo Terradillos Amasa-Villabona

Euskal Herriko iraupen luzeak ibilaldien zirkuituaren baitako urteko lehena izan zen herenegun, Aizkardiko Ibilaldia, hain zuzen. Bada, urteko lehena izanagatik edota XIV Orduen Ibilaldia aurten egokitzen delako, oso parte hartze handia izan du Aizkardi mendi elkarteak antolatzen duen ibilaldia. Antolatzaileak, beraz, «oso gustura» daude, izan duen harreragatik, eta guztia espero bezala joan delako.

1.508 mendizalek hartu dute parte aurtengo ekimenean, aurreko edizioetan baino nabarmen gehiago. Ibilaldi luzean 811 lagunek egin zituzten 43 kilometroak. Horietaatik 688 gizonetzkoak, eta 128 emakumezkoak. Ibilaldi motzeko 24 kilometroak, berriz, 697 lagunek egin zituzten, 439 gizonetzkoak eta 258 emakumezkoak.

Antolatzaileek herenegun izan zen «giro ezinhobea» nabarmendu nahi izan dute: «Mendizale gehienek elkar ezagutzen dute, eta oso giro polita sortzen da». Parte hartzaileek ibilbidearen edertasuna azpimarratzen dute: «Ezagutzen ez dutenak txundituta geratzen dira, eta igandekoa bezalako eguraldi onarekin egiten dutenak ere bai». Izan ere, eguraldiak eragin zuzena du horrelako ibilbide bat egiterakoan: «Primerako eguraldia izan dugu aurten, bidea batere oztoporik gabe zegoen, lokatzik gabe, eta hori asko eskertzen da».

Antolatzaileek herenegun laguntzen aritu ziren 80 lagun ingururi nahiz bestelako babes eman duten guztiei eskerrak eman nahi izan dizkie.



Eguraldi bikaina izan zuten goizetik hasita Ibilaldia egin zuten mendizaleek. HITZA



Parte hartze handia izan da eta Aizkardi elkarteak lan gehiago izan dute Ibilaldiko bulegoan. ERIKA SARASOLA



Ibilaldian atsedena hartzeko ikuspegi ederreko hainbat tontor igaro zituzten. HITZA

Rojo anaiak urrezko bi domina lortu dituzte Espainiakoan

Baqueira Bereten asteburuan izan den Espainiako iraupen eski txapelketan erreleboka nagusi izan dira

Imanol Garcia Landa Tolosa

Baqueira Bereten (Katalunia) lau egunez Espainiako iraupen eski txapelketan lehiatu ondoren, Ioseba eta Imanol Rojo anaiak urrezko bi domina lortuta itzuli dira Tolosara. Bi dominak erreleboka lortu dituzte.

Ostegunean, team sprint modalitatean, bi anaiak osatutako bikoteak irabazi zuten. Herenegun, errelebo mistoetan parte hartu zuten, eta hor ere lehen postua eskuratu zuten bi anaiak eta Maialen Lopez irundarrak osatutako hirukoteak. Ostiralean eta larunbatean banakako probak izan ziren, eta horietan ez zuten dominarik lortu, gutxigatik. Klasisiko eran, Iosebak laugarren amaitu zuen eta Imanolek hamargarren postuan. Skating eran, Imanolek laugarren postua eskuratu zuen eta Ioseba, berriz, 15. iritsi zen.

Imanol Rojok azaldu duenez, «gustura» daude lortutako bi dominekin, baina norbanako probekin ez dira pozik geratu: «Dominatoren bat lortzea espero genuen, baina ni birus batekin nabil azken hamabost egunetan eta ezin izan naiz nahi bezala aritu. Ioseba ere ez da forma onenean iritsi txapelketara». Imanol pozik dago, norbanako probetan lehen postuan amaitu dutenen kontra irabazi dutelako errelebo mistoan: «Euskadiko selekzioa ordezkatu dugu, eta kataluniarrak izan ditugu aurkari zuzenak. Parean aritu ginen, baina, azkenean, 19 segundorengatik irabazi genuen proba».

Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



CARIDAD RODRIGUEZ ARRIETA



Amaren bularra
haurraren janari
aterpe samur hontan
lo hartu nahi dut nik

Samaniego Ikastetxea

Tolosan, 2012ko martxoaren 27an



NEREA IRAETA ZINKUNEGI



Ibilikiak gara pozez kantari.
Orain, zure poza
daramagu gurekin.
Maite zaitugu

Ikastolako zure lagunok

Tolosan, 2012ko martxoaren 27an



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Ibarra.** Ibarra Zero Zabor taldearen aurkezpena eta batzar irekia gaur, 19:00etan, udaletxeko areto nagusian. Taldeak herritar guztiak gonbidatu ditu bileran parte hartzera.
- **Anoeta.** Martxoaren 29ko greba orokorra dela eta herritar talde bat bilduko da gaur 18:00etan, plazan, herriko denda eta merkatal guneean deialdia zabaltzeko. «Denon artean errazago eta gusturago egingo dugu! Animatu!», azaldu dute.
- **Tolosa.** Minbiziari buruzko hitzaldia gaur, 19:00etan, kultur etxean Jose Antonio Alberro ospitale onkologikoko medikuaren eta Maider Sierra psiko-logoaren eskutik.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Gelede mask erakusketa Topic zentroan, ekainaren 10a arte.
- **Tolosa.** AurrezAurre erakusketa apirilak 14a arte, Aranburu jauregian.

Irudia Ibarra



JOLASAK ETA TALOAK, IBAIALDE LAGUNTZEKO

Ibarrako Bai Euskal Herriarik, Uzturpe ikastolak eta udalak bat egin dute Lodosako Ibaialde ikastolari laguntzeko helburuarekin, eta iragan larunbatean jaia antolatu zuten herriko plazan. Jaia arratsaldean egin zuten eta haurrek eman zioten hasiera; plazan bildu eta jolasak egin zituzten. Ondoren, talo jatea egin zuten. Taloak eta

Ibaialde ikastolaren aldeko elastikoak eta materiala salduz bildutako dirua Lodosako ikastolara bidaliko dute. Antolatzaileak azaldu dutenez, gustura daude jaiak emandakoarekin; bai jendearen erantzunarekin eta baita bildutako diruarekin ere. Haurren elastiko guztiak saldu zirela ere gaineratu dute antolatzaileek. A. IMAZ

Agurrak



Urte askoan!
Eritz Altuna Aburuza (Villabona).
Zorionak bi urte potolo bete dituzulako, familia guztiaren partetik.



Zorionak!
Erik Amiano (Tolosa).
Gaur 12 urte.
Muxu handi bat familiaren partetik!

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●● **agurrak**

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.
- **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



Zatuz bizilagun berriak ezagutzera.

SICOS ek 2012/03/22 an 19:00tan zabaltzen du.

Drugitori SICOS era. Adituak gara Apple markarekin erlazionaturiko gurien, beraz, bere produktu eta osagaririk eskaintzeaz gain, etekina ireratzen lagunduko dizuten esagupenak ere baditugu. Ingaratu zaitez gure denda berrira eta ezagutu ezazu Apple familia.

(SICOS)

Martxoak 22, 23 y 24n %10ren deskontua izango duzu zure Mac ordenagailua erostean.

